

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

GIZARTE EKINTZAKO 2020KO JARDUERA ETA AURREKONTUARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko abenduaren 9an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2020ko azaroaren 25ean Gizarte Ekintzako delegatuak Gizarte Ekintzako Kontseiluan emandako datuen arabera, 2020ko saileko aurrekontua 33.832.856,81 eurokoa zen, baina urteko likidazio errealak 30.861.886,26 eurokoa izango da. Hau da, nahiz eta Covid 19ak eragindako ondorio sozio-ekonomikoen eraginez, diru-laguntza eskaerak %33 handitu diren eta kale egoeran bizi diren pertsonentzako ez-ohiko baliabide batzuk ireki diren konfinamenduaren epean (martxotik maiatzera), 3.000.000 euroko aurrezpena izan da gizarte zerbitzuetako aurrekontuan. Diru hori inbertsioen kapitulotik datorren kopurua da eta 2020an erabili gabe geldituko da.

Batzordeetan delegatua interpelatzekoan, ordea, hurrengo datu hauek eman zizkigun: 2020ko Gizarte Ekintzako aurrekontuan 29.276.632 euro genituen (inbertsioetarako aurreikusitako ia 4.000.000 euro inguru kontuan izan gabe), haietatik 44.592 euro Etxegintzarenak, eta horrek kokatzen gintuen 29.220.040 euroko aurrekontuarekin. Delegatuaren hitzetan, saileko likidazioa 30.355.682,98 eurokoa izango da eta, hortaz, Udal Gobernuak 2.426.805 euro gehiago gastatu ditu politika sozialetan, batez ere, kale egoeran zeuden pertsonak atenditzeko eta diru-laguntzak emateko (AES eta APTCen, bidez).

Jakinda aurrekontuetako kapituluaren arteko transferentziak batzuetan ezinezkoak direla (esate baterako, inbertsioetatik gastu korronteak) ezin dugu konpartitu Udal Gobernuak aurreikusitako inbertsio guztiak etetea (haien artean Abegi Etxeko instalazioak hobetzea, Hestia eguneko zentroa egitea, jubilatuen etxeetako hobekuntzak...) eta 2021. urteko planteamendua ere murriztailea izatea (soilik, bi milioiko inbertsioa kontenplazten baita).

Gauzak horrela, 2020rako aurreikusita zegoen Gizarte Ekintzako aurrekontu globaletik, 33.832.856,81 euro horietatik, 30.355.682,98 gastatzea, akatsa deritzogu.

Gainera, osasun alarma egoera hasi zenetik hirugarren sektoreko eragileek zein oposizioko alderdi politikoei inbertsio sozialen beharra ekarri dugu behin eta berriro Udalbatzara, hainbat proposamen eginez egoera zaurgarrian dauden herritarren egoera hobetzeko: kale egoeran daudentzako baliabideen luzapena osasun alarma egoerak irauten duen bitartean, etxeko langileentzako behin-behineko diru-laguntzak, hirugarren sektoreko eragileen subentzioak ez murriztea, etab.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, 2021eko Gizarte Ekintzako aurrekontuan sar dezala 2020an erabili gabe utzi duen inbertsioei dagokien kopurua bere horretan.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2021eko Gizarte Ekintzako aurrekontua indartu dezala, osasun alarma egoeraren ondorioz sortu diren edo areagotu diren behar sozio-ekonomikoei erantzuna emateko.

Donostian, 2020ko abenduaren 11n

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia